www.plazaola.org

20
Nº / Zkia

# PLAZAOLA

PARTZUERGO TURISTIKOA / CONSORCIO TURÍSTICO

100 urte años





Reyno de Navarra
Nafarroa
www.turismo.navarra.es
Gobierno de Navarra




Oficina de Turismo de Lekunberri /
Lekunberriko Turismo bulegoa

Foto / Argazkia: Plazaolako agiritegia

## Índice / Aurkibidea

Introducción / Sarrera 03
Vía verde del PLAZAOLA Bide berdea 08
Sierra de Aralar / Aralar Mendilerroa 10
ARESO 14
IMOTZ 16
LARRAUN 20
LEITZA 26
LEKUNBERRI 30
ARAKIL 34
Otros servicios / Beste baliabide batzuk 37

**Consorcio Turístico Plazaola /**
**Plazaola Partzuergo Turistikoa**

Plazaola, 21.  31870 Lekunberri.
Telf. 948 507 205
plazaola@plazaola.org
www.plazaola.org

**Oficina de Turismo de Lekunberri /**
**Lekunberriko Turismo Bulegoa**

Telf. 948 507 204
oit.lekunberri@navarra.es

**Edición/ Argitalpena**
Consorcio Turístico Plazaola
Plazaola Partzuergo Turistikoa

**Diseño y maquetación / Diseinua eta maketazioa**
Cabinet Comunicación

**D.L. / L.G.**
NA-1453/1995

# Nuestra contribución al desarrollo

El Consorcio Turístico PLAZAOLA es una asociación sin ánimo de lucro que cumple 20 años trabajando con 43 entidades locales y un centenar de empresas privadas por el desarrollo del turismo rural sostenible, en torno al eje vertebrador de la Vía Verde del Plazaola. Nuestro ámbito de actuación comprende los municipios de Areso, Arakil, Imotz, Larraun, Leitza, Lekunberri, Araitz, Basaburua, Ultzama y Sakana.

La superficie de la comarca supera los 500 $km^2$ en los que viven unas 11.000 personas. La localidad con mayor población es Leitza con 2.889 habitantes y la de menor número es Lezaeta, en el valle de Larraun, con 12 habitantes.

# Garapenari egin diogun ekarpena

PLAZAOLA Partzuergo Turistikoa irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da. Dagoeneko 20 urte eman ditu 43 toki-erakunderekin eta ehun enpresa pribatu ingururekin lanean, Plazaolako Bide Berdearen ardatz egituratzailearen inguruan landa-turismoa garatzeko helburuarekin. Gure jardun-eremuak honako udalerri hauek biltzen ditu: Areso, Arakil, Imotz, Larraun, Leitza, Lekunberri, Araitz, Basaburua, Ultzama eta Sakana.

Eskualdeak 500 $km^2$-ko azalera du, eta 11.000 pertsona inguru bizi dira bertan. Biztanle gehien dituen herria Leitza da (2.889 biztanle), eta gutxien dituena, berriz, Larraun Haraneko Lezaeta (12 biztanle).

## 20 AÑOS, 20 PROYECTOS
## 20 URTE, 20 BALIABIDE

Estos son algunos de los recursos que se han acondicionado en los últimos 20 años.
Hauek dira, azken 20 urte hauetan egokitu diren baliabide batzuk:

1. Nacederos del río Larraun / Larraun ibaiaren iturburuak
2. Mirador de Albiasu / Albiasuko miradorea
3. Ferrería de Betelu / Beteluko burdinola
4. Robledal de Orgi / Orgiko hariztia
5. Oficina de turismo "Kuartelena" de lizaso / Lizasoko "Kuartelenea" turismo bulegoa
6. Cuevas de Mendukilo / Mendukilo koba
7. Robles Centenarios de Basaburua / Basaburuako haritzak
8. Senderos interpretativos / Interpretaziozko sendak
9. Senderos turísticos / Senda turistikoak
10. Proyecto Iturraskarri / Iturraskarri proiektua
11. Señalizacion turistica / Seinalizazio turistikoa
12. Estacion del Plazaola / Plazaola Geltokia
13. Vía verde Lekunberri / Lekunberriko Bide Berdea
14. Vía verde Leitza / Leitzako Bide Berdea
15. Vagón de los juegos / Jolasen bagoia
16. Kantina del Plazaola / Plazaolako Kantina
17. Túnel de Uitzi / Uitziko tunela
18. Vía verde Imotz / Imotzeko Bide Berdea
19. Vía verde Mugiro / Mugiroko Bide Berdea
20. Proyecto Vía Verde Irurtzun- Pamplona / Irurtzun Iruñeako Bide Berdearen proiektua



Estación Plazaola de Lekunberri / Lekunberriko Plazaola Geltokia

Foto / Argazkia: Iñaki Atxa

# Naturaleza en estado puro

Nos encontramos en plena montaña, en la región denominada **Navarra húmeda**, donde los ríos dirimen entre desembocar sus aguas en el **Cantábrico**, como los de los valles de **Leitzaran** y **Araitz**, o en los afluentes del **Ebro** y donde las abundantes lluvias dan lugar a un paisaje de vegetación exuberante.

Los vestigios de los primeros habitantes de la zona se hacen presentes en los monumentos megalíticos que se hallan en los montes.

El paisaje, salpicado de montañas escarpadas, denominadas kársticas, en torno a los mil metros de altitud, la cima más alta es la del **Irumugarrieta (1.427 m)**, permite la práctica de buen número de deportes y actividades en la naturaleza, en un lugar privilegiado por sus monumentos naturales.

Aquí encontramos espacios protegidos, sorprendentes y únicos, como la **Reserva Natural de Putterri** (83 ha.) cuya altitud asciende a 1.299 m. en la sierra de **Aralar**, donde se conservan avellanos, tilos, arces y magníficos ejemplares de tejo vetusto y joven. La cima, oculta en un hayedo, evoca las leyendas que hablan de la morada de la diosa Mari, señora de la lluvia y las tormentas.

En **Arakil** un día se alzó el castillo de Aixita sobre el desfiladero de Dos Hermanas y defendió al Viejo Reyno de las tropas castellanas y hoy ese espíritu de lucha es testigo de un valle lleno de vida y de rincones naturales e históricos con grandes posibilidades para los viajeros.

Como un espejismo, en plena cornisa cantábrica se halla el encinar de **Zigadi-Beroate**, en el término de **Betelu**. Se trata de un bello y sorprendente paraje endémico del mediterráneo surgido tras los períodos secos del cuaternario en el desfiladero del río **Araxes**.

# Los bosques mágicos

Lamias, brujas y gentiles viven en la espesura de los bosques. En **Lizaso**, el **robledal de Orgi**, último vestigio de robledal húmedo de llanura, abarca **80 hectáreas de Área Natural Recreativa** en las que se combina la regeneración del bosque con su disfrute.

El **bosque de Leitzalarrea,** al norte de **Leitza**, combina las zonas adaptadas para el ocio, como la de **Ixkibar**, con el **jardín botánico de Izaieta, con sus abetos blancos declarados Monumento Natural,** junto con las 41 especies de árboles que crecen en los montes de **Leitza.** Además en **Ixkibar** confluyen diferentes rutas perfectamente señalizadas. En el monte **Aritz,** se encuentra el **Majuelo de Leitza, un espino declarado Monumento Natural** en 2009. Así mismo, en **Basaburua** se encuentran los **robles centenarios de Jauntsarats, declarados monumento natural.**

En todo el entorno hay **robledales** como los de **Larraun** y **Ultzama-Orgi** e **impresionantes hayedos** en la sierra de **Aralar** y sus proximidades, como los de **Baraibar, Iribas, Alli, Astitz, Oderitz** y **Madotz.**

# Fauna salvaje

En esta zona se encuentra abundante fauna doméstica (vacas, ovejas y caballos) y salvaje, más oculta a los ojos del viajero, como **jabalíes, ciervos, corzos, martas, tejones** y **lirones grises.**

**Buitres, alimoches, milanos** y otras aves rupícolas de gran tamaño sobrevuelan las cimas. Los ríos son **trucheros**, en buena parte de los cuales está permitida la **pesca deportiva**. También abundan palomeras y **cotos de caza** regulados.


Foto / Argazkia: Iñaki Atxa


Foto / Argazkia: Aresoko herria


Foto / Argazkia: J.A. Garaikoetxea

# Del neolítico al románico

**Aralar** es una **montaña mágica** en la que la tradición oral ubica una lucha entre un ángel y el demonio en forma de dragón y señala puntos telúricos en simas y llanos salpicados de dólmenes, 44 en el entorno, y un menhir, **Erroldan Arriya**, en el valle de **Ata**.

En la cima se encuentra el **santuario románico de San Miguel de Aralar**, en el que destaca el retablo, obra cumbre de la esmaltería europea, que data del siglo XII. Adyacentes, **una ermita dedicada a la Santísima Trinidad,** y un establecimiento de restauración donde se pueden reponer fuerzas.



Foto / Argazkia: Plazaolako agiritegia

# La cultura, el patrimonio inmaterial que nos define

Conservamos **una cultura milenaria, la vasca**, con una riqueza que se refleja en todos los ámbitos de la vida. El **euskera**, hasta hace pocos años se ha preservado como única lengua de la zona y hoy en día sigue siendo el idioma principal de casi el 80% de nuestros vecinos.

Una de las partes de esa riqueza heredada que más ha trascendido ha sido la **gastronomía**. Los quesos de D.O. **Idiazabal**, la cuajada, los talos de maíz, las carnes de vacuno y cordero, los guisos de caza, el bacalao al ajoarriero, las imprescindibles alubias rojas con sus sacramentos y menestras de verdura, platos con setas y hongos que crecen en la zona, son algunas de las delicias que podemos degustar en fiestas populares, restaurantes y sidrerías de nuestros pueblos.

**Los deportes rurales o herri-kirolak** surgen como consecuencia de las labores diarias, como eran transportar piedras de las canteras, que dan lugar a las pruebas de arrastre con animales y a las realizadas por los hombres como cortar leña. Nuestra tierra es cuna de grandes atletas de levantamiento de piedra, corte de troncos con hacha y pelota a mano, y destino de aficionados al deporte rural que disfrutan de exhibiciones, concursos y apuestas.

El **patrimonio inmaterial** no puede olvidar a la **cultura ancestral de las tradiciones artesanales,** que, lejos de las corrientes industriales de la actualidad, recuerda la confección de productos según aprendieron de sus padres o abuelos, quienes a su vez heredaron recetas y técnicas de sus mayores. Los artesanos del Plazaola ofrecen sus productos, (tallas, forja, conservas, bebidas y quesos, entre otros), en una tienda ubicada en la **Estación del Plazaola de Lekunberri.**



Foto / Argazkia: Venta de Muguiro



Errazkin, un pueblo del Valle de Larraun con las Malloas al fondo.

Errazkin, Larraungo herri bat Mailoekin aurrean.




Vía Verde Plazaola / Plazaola Bide Berdea




Visión nocturna desde Aralar / Gaueko ikuspegia Aralarretik




Pórtico de la iglesia de Iribas / Iribaseko elizaren ataria

# Natura hutsa

Mendialdean gaude, **Nafarroa hezean**. Eskualde honetan, ibai batzuek **Kantauri itsasora** isurtzen dituzte urak (**Leitzaran** eta **Araizko** haranetakoek, adibidez), eta beste batzuek, berriz, **Ebroren** ibaiadarretara. Gainera, euri ugariek landaredia oparoz osatutako paisaia sortzen dute.

Inguruko lehen biztanleen aztarnak mendietako monumentu megalitikoak dira.

Paisaia, halaber, mila metro inguruko garaierako mendi malkartsu karstikoz beteta dago (tontorrik garaiena **Irumugarrieta** da **-1.427 m-**), eta naturako kirol eta jarduera ugari egin daitezke bertan. Monumentu naturalak direla-eta, leku pribilegiatua dela esan daiteke.

Horrez, gain, gune babestu, harrigarri eta paregabeak daude. Horien artean, **Putterriko Erreserba Naturala** (83 ha) azpimarratu behar da. **Aralarko** mendilerroan kokatuta dago, eta 1.299 metroko garaierara iristen da. Bertan, urritzak, ezkiak, astigarrak eta hagin zahar eta gazte ederrak ditugu. Tontorra pagadi batean ezkutatuta dago, eta Mari jainkosaren, hots, euriaren eta ekaitzen andrearen bizilekua ekartzen du gogora.

**Arakilen**, Biahizpeko haitzartean, Aixitako gaztelua egon zen, eta Nafarroako Erresuma babestu zuen Gaztelako tropez. Gaur egun, bizitzaz eta bidaiariei aukera handiak eskaintzen dizkieten bazter natural eta historikoz beteta dagoen haran baten lekuko da borroka-espiritu hori.

Kantauri itsasoko ertzean, irudikeria bailitzan, **Zigadi-Beroateko** artadia dago, **Beteluko** udal-mugartean. Paraje mediterranear endemiko eder eta harrigarria da, **Araxes** ibaiaren haitzartean Kuaternarioko aldi lehorren ondoren sortua.

# Baso magikoak

Lamiak, sorginak eta jentilak basoetan bizi dira. **Lizason**, **Orgiko hariztiak** (lautadako harizti hezeen azken aztarnak) **80 hektareako Atseden Eremu Naturala** biltzen du. Bertan, basoa birsortu eta basoa baliatu egiten da aldi berean.

**Leitzako** iparraldean, **Leitzalarreko basoan,** aisiarako egokitutako eremuak (hala nola **Ixkibar** izenekoa), **Izaietako lorategi botanikoa (bertako izei zuri batzuk Monumentu Natural deklaratu dituzte)** eta **Leitzako** mendietan dauden 41 zuhaitz-espezie ditugu. **Ixkibarren**, gainera, ongi seinaleztatutako hainbat ibilbide elkartzen dira. **Aritz** mendian, **Leitzako Elorri Zuria** dago, 2009. urtean **Monumentu Natural deklaratu zutena**. Halaber, **Basaburuan,** monumentu natural deklaratutako **Jauntsaratseko ehun urtetik gorako haritzak** daude.

Inguru osoan, zenbait **harizti** daude (hala nola **Larraun** eta **Ultzama-Orgikoak**). Gainera, **pagadi bikainak** daude **Aralarko** mendilerroan eta inguruetan (hala nola **Baraibar, Iribas, Alli, Astitz, Oderitz** eta **Madotzekoak**).

# Animalia basatiak

Etxeko animaliez gain (behiak, ardiak eta zaldiak), animalia basati ugari daude inguruan (**basurdeak, oreinak, orkatzak, lepahoriak, azkonarrak** eta **muxar grisak**), bidaiariarentzat ikustea zailagoak badira ere.

Tontorren gainetik hegan, berriz, **putreak, putre zuriak, miruak** eta tamaina handiko beste hegazti errupikola batzuk ikus daitezke. Ibaietan **amuarrainak** daude, eta ibai askotan baimenduta dago **kirol-arrantza**. Uso-ehizategiak eta arautatutako **ehiza-barrutiak** ere ugariak dira.

# Neolitotik Erromanikora

**Aralar mendia magikoa da**. Ahozko tradizioaren arabera, aingeru bat herensuge gisa agertu zen deabruaren aurka eta borroka egin zuten bertan. Gainera, puntu telurikoak ditu sima eta zelaietan; 44 trikuharri daude inguruan, eta iruinarri bat (**Erroldan Arriya**), **Ata** haranean.

Goialdean, **Aralarko San Migel santutegi erromanikoa** dago. Bertako erretaula, XII. mendekoa, Europako esmaltegintzaren obra gorena da. Ondoan, **Hirutasun Guztiz Santuari eskainitako ermita** eta indarrak berritzeko jatetxe bat daude.



Foto / Argazkia: Plazaolako agiritegia

Exhibición de deporte rural en Leitza
Herri kirol erakustaldia Leitzan

# Kultura, definitzen gaituen ondare immateriala

**Milaka urteko kultura bati** eusten diogu (**euskal kulturari**), eta kultura horren aberastasuna bizitzaren eremu guztietan islatuta dago. **Euskara**, duela gutxi arte, inguruko hizkuntza bakarra izan da, eta biztanleen ia % 80ren hizkuntza nagusia da oraindik ere.

Jasotako aberastasun horren barruan osperik handiena izan duen elementuetako bat **gastronomia** izan da. Herrietako jaietan, jatetxeetan eta sagardotegietan dasta ditzakegun gutizien artean, honako hauek azpimarratu behar ditugu: **Idiazabal** jatorrizko deiturako gazta, mamia, taloak, behikiak eta ardikiak, ehiza-jakiak, bakailaoa ajoarriero erara, ezinbesteko babarrun beltzak (sakramentuekin), barazki-menestrak, eta inguruko perretxiko eta onddoak.

**Herri-kirolek** eguneroko lanetan dute jatorria (harrobietatik harriak garraiatzeko lanean, adibidez). Lan horien ondorioz sortu ziren animalia-probak eta gizakiek egindakoak (hala nola egurra moztea). Gure lurrak harri-jasotzaile, aizkolari eta pilotari handiak eman ditu, era erakustaldi, lehiaketa eta apustuekin gozatzen duten zale ugari daude.

**Ondare immaterialaren** barruan, ezin dugu ahaztu **artisau-tradizioen antzinako kultura**. Gaur egungo industria-korronteetatik urrunduta, produktuak beren aurrekoen errezetak eta teknikak jaso zituzten guraso edo aitona-amonengandik ikasi bezala egiten jarraitzen da. Plazaolako artisauek **Plazaolako trenaren Lekunberriko geltokian** dagoen denda batean eskaintzen dituzte beren produktuak (tailak, forja-lanak, kontserbak, edariak eta gaztak, besteak beste).




# Vía verde del PLAZAOLA
# Bide berdea

La **Vía Verde** recupera el trazado del tren **Plazaola,** que unió **Iruña-Pamplona y Donostia-San Sebastián** entre 1914 y 1953, por lo que **celebra 100 años** con la ilusión de seguir uniendo pueblos y ciudades disfrutando de la naturaleza. Así mismo, el **Consorcio** que lo gestiona cumple **20 años.**

El **antiguo tren minero** comenzó a transportar pasajeros en 1914. En 1953, las riadas y la competencia de los autobuses llevaron al cierre de la línea.

**+ info: www.plazaola.org**

1914tik 1953ra bitarte **Iruñea eta Donostia** elkartu zituen **Plazaolako** trenaren bidea berreskuratu du **Bide Berdeak**. Horregatik, herriak eta hiriak elkartzen eta naturaz gozatzen jarraitzeko ilusioarekin **ospatu nahi ditugu 100 urteak**. Era berean, **20 urte** bete ditu Bide Berdea kudeatzen duen **Partzuergoak**.

**Antzinako meatze-trena** 1914an hasi zen bidaiariak garraiatzen. 1953. urtean, uholdeen eta autobusen lehiaren ondorioz, linea itxi egin zen.

**Informazio gehiago: www.plazaola.org**

## La estación de Lekunberri.

La rehabilitada **estación de Lekunberri** es el punto ideal para partir hacia la aventura del **Plazaola,** puesto que allí se encuentra información de todas las propuestas relacionadas.

- **Oficina de Turismo**
- Sala de **exposiciones y proyecciones**
- **Tienda** de productos locales.
- **Vagón de los juegos** para los más pequeños.
- Servicio gratuito de **alquiler de bicicletas adaptadas.**
  - **Estación de Lekunberri:**
    Tel.: 948 50 72 04
    Mail: oit.lekunberri@navarra.es
- **La kantina,** cafetería que ofrece, además, **servicio de alquiler de bicis y transporte de vuelta.**
  - **La Kantina:**
    Tel.: 948 60 48 21 / 699 38 32 87
    Mail: kantinaplazaola@gmail.com

## Recorridos.

La Vía se ha recuperado como camino natural. Se puede recorrer a pie, en bici, a caballo, o con silla de ruedas. Está prohibido el acceso de vehículos a motor, excepto para los vehículos autorizados.

Se han recuperado más de 50 km de recorrido y están en proceso los tramos de **Mugiro, Dos Hermanas, Irurtzun-Pamplona** y el enlace **Bidasoa-Plazaola/ Doneztebe-Urritza (Eurovelo).**

El objetivo es completar el **trazado original del Plazaola** entre **Iruña-Pamplona y Donostia-San Sebastián.**

Destaca el **túnel de Uitzi,** situado en el puerto que marca la divisoria de aguas entre el **Cantábrico** y el **Mediterráneo** y la de los tramos recuperados. Con una longitud de 2'7 km llegó a ser el más largo de la península y puede recorrerse tras la rehabilitación de 2011, para lo cual es obligatorio llevar casco y luz y se recomienda llevar ropa de abrigo.

## Lekunberriko geltokia.

Birgaitutako **Lekunberriko geltokia** leku aproposa da **Plazaolako** trenaren abenturan murgiltzeko, proposamen guztiei buruzko informazioa aurki baitaiteke bertan.

- **Turismo Bulegoa.**
- **Erakusketa eta proiekzioen** gela,
- Bertako produktuen **denda.**
- **Jolasen bagoia** haurrentzat.
- **Bizikleta egokituen alokairu-zerbitzua,** doan.
  - **Lekunberriko geltokia:**
    Tel.: 948 50 72 04
    E-maila: oit.lekunberri@navarra.es
- **La Kantina** kafetegia; **bizikleten alokairu-zerbitzua eta itzultzeko garraioa** eskaintzen du.
  - **La Kantina:**
    Tel.: 948 60 48 21 / 699 38 32 87
    E-maila: kantinaplazaola@gmail.com

## Ibilbideak.

Trenbidea berreskuratu eta bide natural bihurtu da. Oinez, bizikletaz, zaldiz edo gurpil-aulkiz ibil daiteke bertan. Debekatuta daude motordun ibilgailuak, baimena dutenak izan ezik.

50 km-tik gorako bidea berreskuratu da, eta berreskuratzeko prozesuan daude **Mugiro, Biahizpe eta Irurtzun-Iruñea** tarteak eta **Bidasoa-Plazaola / Doneztebe-Urritza (Eurovelo)** lotura.

Helburua **Plazaolako trenaren jatorrizko bidea** osatzea da, **Iruñetik Donostiara.**

Azpimarratu beharra dago **Uitziko tunela, Kantauri itsasoaren** eta **Mediterraneoaren** arteko isurialdeen banalerroa ezartzen duen mendatean kokatua dagoela. Tunelak 2'7 km-ko luzera du (penintsulako luzeena izan zen garai batean), eta zeharka daiteke 2011ko birgaitzearen ondoren. Dena dela, kaskoa eta argia eraman behar dira nahitaez, eta hotzaz babesteko arropa eramatea gomendatzen da



## Propuestas de recorridos

## Ibilbideak aukeran

Código QR kodea

Distancia total /Distantzia osotara: 50,5 km

Distancia total en Navarra / Distantzia osotara Nafarroan: 28 Km

**Estación de Leitza- Límite de Gipuzkoa / Leitzako geltokia - Gipuzkoako muga:**

Distancia / Distantzia: **5Km**
1h.
0.30h.
Desnivel / Malda: Ligero descenso / Jaitsiera arina
Tuneles / Tunelak: 2

**Estación de Leitza - Tunel Uitzi / Leitzako geltokia - Uitziko tunela:**

Distancia / Distantzia: **7Km**
1,30h.
0,45h.
Desnivel / Malda: Ligero ascenso / Igoera arina
Tuneles / Tunelak:11

**Tunel Uitzi / Uitziko tunela:**

Distancia / Distantzia: **2,7km**
0,30h.
0,15h.
Desnivel / Malda: Ligero ascenso / Igoera arina
Tuneles / Tunelak: 1 iluminado / argiztatua

**Tunel Uitzi - Lekunberri / Uitziko tunela - Lekunberri:**

Distancia / Distantzia: **5km**
1h.
0,30h.
Desnivel / Malda: Ascenso / Igoera
Tuneles / Tunelak: 3

**Lekunberri- presa Muguiro / Lekunberri - Mugiroko presa:**

Distancia / Distantzia: **2km**
0,25h.
0,15h.
Desnivel / Malda: Ligero descenso / Jaitsiera arina
Tuneles / Tunelak: 0

**Nuevo tramo de Imotz - Imotz-ko zati berria San Migueltxo - Kaxarna:**

Distancia / Distantzia: **6,5km**
1,30h.
0,45h.
Desnivel / Malda: ligero descenso / jaitsiera arina
Tuneles / Tunelak: 0

Accesos / Sarbideak:
LATASA- San Migueltxo: **4km**
LATASA- Kaxarna (presa de Irurtzun): **2,5km**

**TRAMO EN OBRAS (VERANO 2014) / TARTE-UNEA EGOKITZE BIDEAN (2014KO UDAN)**

**Presa de Mugiro - San Migeltxo / Mugiroko presa - San Migeltxo:**

Distancia / Distantzia: **4km**
1h.
0,30h.
Desnivel / Malda: Importante hasta subir a Mugiro / gogorra Mugirora igo arte
Tuneles / Tunelak: 0



Foto / Argazkia: J.A. Garaikoetxea



Foto / Argazkia: Archivo Reyno de Navarra

# Sierra de Aralar
# Aralar Mendilerroa

La sierra de Aralar es un Lugar de Interés Cultural situado entre Navarra y Gipuzkoa, donde está declarado Parque Natural. Se trata del segundo hayedo en extensión de Navarra y, por tanto, uno de los pulmones de la península. Desde el mirador se divisan las sierras de Andia, Urbasa y San Donato y el corredor de Arakil.

Ángeles y dólmenes coexisten en la sierra con cimas en torno a los 1.000 metros y profundas simas rodeadas de monumentos megalíticos.

Aralarko mendilerroa Kultura Intereseko Lekua da, eta Nafarroaren eta Gipuzkoaren artean kokatuta dago. Gipuzkoan, Parke Naturala da. Nafarroako bigarren pagadirik handiena dago bertan. Beraz, ingurua penintsulako biriketako bat dela esan daiteke. Begiratokitik, Andia, Urbasa eta San Donato mendilerroak eta Arakilgo korridorea ikus daitezke.

Aingeru eta trikuharrien lekua da 1.000 metro inguruko tontorrak, sima sakonak eta monumentu megalitiko ugari dituen mendilerroa.

La **Sierra de Aralar**, entre Navarra y Gipuzkoa, es centro del imaginario cultural vasco y paraje de gran belleza. Paisajes únicos y especies de flora y fauna singulares confluyen con pastos y los restos de explotaciones forestales y mineras. La vertiente guipuzcoana es Parque Natural desde 1994 y la parte navarra, **Lugar de Importancia Comunitaria (LIC) en la Red Natura 2000.** En la sierra han dejado huella desde los habitantes de la Prehistoria, hasta peregrinos, viajeros, mineros y pastores. La vertiente navarra conserva mayor densidad forestal, ya que en la guipuzcoana el uso predominante fue el ganadero. La montaña ha regalado al ser humano **pasto para el ganado, leña y carbón, agua y minerales** para las 22 ferrerías que hubo en la sierra.

Aralar alberga un impresionante **conjunto de monumentos megalíticos**, 50 en Navarra y 30 en Gipuzkoa, clasificados éstos como Conjunto Monumental. Los grupos prehistóricos más relevantes se hallan en **Aralar-Larraun y Ataun-Burunda** y las rutas guiadas de **Ataun y Etxarri Aranaz** son las más destacables.

La sierra era desde la Prehistoria **lugar sagrado**, y sus bosques, simas y cavernas, hogar de diosas y genios. Los romanos construyeron el **santuario de Ara Coeli,** hoy Arakil, que protegía a quienes viajaban por la calzada entre Astorga y Burdeos. En la Edad Media, la Iglesia instauró allí su **culto a San Miguel**, que es venerado en 56 templos de Navarra, aunque el de Aralar es punto neurálgico de la devoción al Arcángel.

**Aralarko mendilerroa** Nafarroaren eta Gipuzkoaren artean kokatuta dago. Edertasun handiko ingurua da, eta euskal kultura-imaginarioaren erdigunea dela esan daiteke. Paisaia paregabeak eta flora- eta fauna-espezie bereziak larreekin eta baso- eta meatze-ustiapenen aztarnekin nahasita agertzen dira. Gipuzkoako aldea Parke Naturala da 1994. urtetik aurrera, eta Nafarroako aldea, berriz, **Garrantzi Komunitarioko Lekua da Natura 2000 sarean.** Mendilerroan, Historiaurreko biztanleek, erromesek, bidaiariek, meatzariek eta artzainek utzi dituzte arrastoak. Nafarroako aldeak baso-dentsitate handiagoa du, Gipuzkoako aldean erabilera nagusia abeltzaintza-erabilera izan baitzen. Mendiak **abereentzako bazka, egurra, ikatza, ura eta mineralak** (mendilerroan izan ziren 22 burdinolak hornitzeko) eskaini dizkio gizakiari.

Aralarren, **monumentu megalitiko multzo** ikaragarri bat dago. Nafarroan 50 monumentu daude, eta Gipuzkoan 30 (hauek Monumentu Multzo gisa sailkatuta daude). Historiaurreko multzorik garrantzitsuenak **Aralar-Larraunen eta Ataun-Burundan** daude, eta **Ataun eta Etxarri-Aranazko** ibilbide gidatuak dira azpimarragarrienak.

Mendilerroa **leku sakratua** izan da Historiaurretik, eta bertako basoak, simak eta leizeak, berriz, jainkosen eta jeinuen bizileku. Erromatarrek **Ara Coeli-ko** (Arakil gaur egun) **santutegia** eraiki zuten, Astorgatik Bordelerako galtzadan zebiltzanak babesteko. Erdi Aroan, **San Migueli eskainitako gurtza-lekua** ezarri zuen bertan Elizak. San Migel Nafarroako 56 tenplutan gurtzen dute, baina Aralarko santutegia da arkanjeluarenganako debozioaren gune nagusia.

# Santuario / Santutegia

Aralar Mendia. 31840 Uharte Arakil. Nafarroa
T.: 948 37 30 13 • www.aralarkosanmigel.info
info@aralarkosanmigel.info




Foto / Argazkia: Plazaolako agiritegia

Retablo del Santuario / Santutegiko erretaula

En tiempos de los visigodos, Teodosio de Goñi era un caballero que en Aralar vagaba arrastrando unas pesadas cadenas. Estas eran la penitencia por haber matado por engaño del demonio a sus padres. Invocó a San Miguel para vencer al demonio que se le apareció en forma de dragón. El arcángel lo mató y entregó al caballero la figura con que se le había aparecido. Teodosio, absuelto de sus pecados, levantó allí el **santuario de San Miguel Excelsis**, convirtiendo así un lugar de culto religioso desde la prehistoria en punto referencial del cristianismo.

El templo románico tiene su primera referencia en el año 1032 aunque hay trazas de siglos anteriores. Alberga un **retablo esmaltado del siglo XII**, atribuido hasta ahora al taller de Limoges, aunque ahora toman cuerpo otras hipótesis. Quizá un regalo de boda con motivo del matrimonio de Ricardo Corazón de León con una princesa navarra. Su valor artístico es reconocido en toda Europa. Algunos huecos en la obra restaurada recuerdan que, en 1979, el ladrón de arte Erik “El Belga” robó todos los esmaltes y las piedras preciosas, aunque años después pudo recuperarse la gran mayoría.

Preside la iglesia una **imagen relicario de plata sobredorada del siglo XVIII** que representa al ángel y que contiene la talla de madera del Lignum Crucis que, según la leyenda, el mismo San Miguel entregó al señor de Goñi en esta montaña. El dato histórico nos lleva a la llegada de las Cruzadas de Ramiro de Navarra y Aragón, quien en 1099 dona la reliquia al Santuario.



Foto / Argazkia: Nerea Mazkiaran

En el interior de la iglesia se hallan las cadenas de la leyenda, de las que fue liberado Teodosio por la espada del arcángel.

El santuario era frecuentado por mujeres que querían tener hijos y por quienes se querían librar de los dolores de cabeza introduciéndola en un hueco que hay junto al altar y rezando un credo. La historia afirma que el “kredozulo” es la entrada a una sima por la que huyó el dragón. En la explanada se erige también la pequeña ermita de la Trinidad.

Bisigodoen garaian, Teodosio Goñikoa izeneko zalduna herratuta zebilen Aralarren, kate astun batzuk zeramatzala. Kateak, deabruak engainatuta, gurasoak hiltzeagatik ezarritako penitentzia ziren. Teodosio Goñikoak San Migelen babesa erregutu zuen, herensugearen itxurarekin agertu zitzaion deabrua garaitzeko. Arkanjeluak herensugea hil, eta bere figura eman zion zaldunari. Teodosiok, egindako bekatuen barkamena jaso ondoren, **San Miguel Excelsis santutegia** eraiki zuen bertan, eta Historiaurretik erlijio-gurtzarako leku izan zena kristautasunaren erreferentziazko gune bihurtu zen.

Tenplu erromanikoaren lehen erreferentzia 1032. urtekoa da, baina aurreko mendeetako arrastoak ere baditu. Tenpluaren barruan, **XII. mendeko erretaula esmaltatu** bat dago. Orain arte Limogesko tailerrekoa dela pentsatu izan da, baina gaur egun beste hipotesi batzuk agertu dira. Baliteke Rikardo Lehoibihotz Nafarroako printzesa batekin ezkontzean egindako opari bat izatea. Erretaularen balio artistikoa Europa osoan aitortu dute. Zaharberritutako obran geratu diren hutsune batzuek (gogorarazten dutenez, 1979. urtean Erik “belgikarra” izeneko lapurrak esmalte eta harribitxi guztiak lapurtu zituen (handik urte batzuetara) gehienak berreskuratu ahal izan ziren).

Elizaren aurrean, **XVIII. mendeko zilar urreztatuzko irudi/erlikiontzi** bat dago. Arkanjelua irudikatzen du, eta kondairaren arabera San Migelek berak Goñiko jaunari eman zion Lignum Crucis izenekoaren taila bat biltzen du. Datu historikoak Ramiro Nafarroa eta Aragoikoak Gurutzadan parte hartu zuen garaira garamatza. Erregeak santutegiari eman zion erlikia 1099. urtean.

Elizaren barruan, kondairak aipatzen dituen kateak daude. Kondairaren arabera, arkanjeluak ezpatarekin askatu zuen Teodosio kateez.

Seme-alabak izan nahi zituzten emakumeak eta buruko minak sendatu nahi zituzten pertsonak santutegira joaten hasi ziren. Aldarearen ondoan dagoen zulo batean burua sartu, eta kredoa errezatzen zuten. Kondairak dioenez, herensugeak ihes egiteko erabili zuen sima baten sarrera da kredozuloa. Zelaigunean, halaber, Hirutasun Santuaren ermita txikia dago.

# Cueva Mendukilo / Mendukilo Lezea

Ctra NA-7500 Lekunberri - Astitz • T.: 948 39 60 95 / 608 62 36 04 • mendukilo@mendukilo.com
www.mendukilo.com

La cueva de Mendukilo, en Astitz, es la puerta a las entrañas de Aralar. La entrada externa de la gruta la usaban los pastores como establo y más recientemente su acceso fue privilegio de espeleólogos y aventureros.

La cueva se acondicionó turísticamente en 2005. **El recorrido en la propia cueva es de 1 hora,** y se realiza por pasarela flotante, con iluminación dinámica, bajando 40 m. desde la boca de entrada. La temperatura no supera los 8ºC y la humedad es del 100%.

La primera sala es **Artzainzulo o de los Pastores**, que era la que utilizaban como refugio los pastores. A esta estancia de volumen espectacular llega la luz natural que permite atisbar las primeras formaciones geológicas.

Unos 30 metros más abajo se llega a la **Sala Laminosin, o de los Lagos** con una impresionante cantidad de estalactitas, estalagmitas, gours y otras formaciones.

La tercera sala es **Herensugearen Gotorlekua o la Morada del Dragón**, una impactante cavidad de 60 m. de largo y en algunos puntos hasta 20 m. de altura donde podemos sentir el mundo subterráneo al natural.

**Visitas con cita previa. Consultar horarios.**

Astitzen kokatuta dagoen Mendukiloko kobazuloa Aralarko erraietarako sarrera da. Haitzuloaren kanpoko sarrera ukuilu gisa erabiltzen zuten artzainek. Berrikiago, espeleologoek eta abenturazaleek erabili izan zuten.

Kobazuloa turismorako egokitu zen 2005. urtean. **Kobazuloaren barruko ibilbidea ordu 1ekoa da**, eta gaineko pasabide batetik egiten da. Argiztapen dinamikoa dago, eta 40 m jaisten dira sarreratik. Tenperatura ez da 8 °C-tik igotzen, eta % 100eko hezetasuna dago.

Lehen aretoa **Artzainzulo** izenekoa da. Artzainek babesleku gisa erabiltzen zuten. Gela ikusgarri horretara argi naturala iristen denez gero, lehen formazio geologikoak ikus daitezke.

30 metro beherago, **Laminosin aretoa** dago. Bertan, estalaktita, estalagmita, gour eta beste formazio asko eta asko daude.

Hirugarren aretoa **Herensugearen Gotorlekua** da. 60 metroko luzera (eta, toki batzuetan, 20 m-ko garaiera) duen barrunbe txundigarria da, eta lurpeko mundua era naturalean sentitzeko aukera ematen du.
**Bisitaldietarako, ordua eskatu behar da aldez aurretik. Kontsultatu ordutegiak.**


Foto / Argazkia: Bakartxo Aniz Aldasoro

# Nacederos de Iribas/ Iribaseko Iturburuak

Iribas, Valle de Larraun a 2km de Lekunberri, en la carretera que sube a San Miguel de Aralar. Nacederos de Iribas (SL-NA 302)

Iribas, Larraungo bailaran, Lekunberritik 2 km-tara, Aralarko San Migelera igotzen den errepidean. Iribaseko iturburuak (SL-NA 302)

Sendero circular (SL NA-302) de unos 5 km que recorre los nacederos de **Iribas**: **Aitzarrateta**, que origina el río **Ertzilla**, y **Basakaitz**, donde nace el río **Larraun**. **Duración aproximada 1h30', recomendado para familias con niñ@s.**

Desde el pueblo se toma la pista que llaneando pasa junto al depósito de agua. A 800 metros, en el primer cruce la pista sube a la derecha y en el siguiente, el camino de la izquierda baja a la borda de Arotzenea. De allí en dirección sureste una pista conduce hasta el nacecedero de Aitzarrateta, en un espectacular entorno de bosque de hayas endémico de la zona.

La vida en superficie del río es casi efímera. Si retrocedemos unos metros por las campas de Aiztondo vemos que al fondo se amontonan las ramas: es el sumidero del río Ertzilla, que desaparece tras apenas un kilómetro.

Tras una corta pendiente, una pista nos lleva a la **sima de Lezegalde**, lugar donde se sumergen las aguas rebosadas del Ertzilla en días de especial crecida. Desde aquí, continuamos el cauce seco que baja por el valle de Uhantxoko hasta Basakaitz, el nacedero del río Larraun, donde surgen las aguas del nuevo río. Una fuerte pendiente nos devuelve al punto de salida en Iribas, aunque existe un atajo para volver al pueblo, más suave que la última pendiente.

**Iribasko** iturburuetatik egiten den 5 km inguruko ibilbide zirkularra da (SL NA-302). Honako iturburu hauek ikus daitezke: **Aitzarrateta**, hau da, **Ertzilla** ibaia sortzen duena, eta **Basakaitz**, hots, **Larraun** ibaia sortzen duena. **Iraupena ordu 1 eta 30 minutu ingurukoa da. Seme-alabekin joateko aproposa da.**

Herrian bertan, ur-andelaren ondotik igarotzen den pista hartu behar da. Handik 800 metrora, lehenengo bidegurutzean, pistak eskuinera egiten du gorantz, eta bigarrenean, ezkerreko bidea Arotzeneko bordara jaisten da. Handik, hego-ekialderantz, inguruko pagadi endemiko batean dagoen Aitzarrateta iturbururaino eramango gaitu pista batek.

Ibaiaren bizitza oso laburra izaten da. Aiztondoko zelaietatik metro batzuk atzera egiten badugu, adarrak pilatuta daudela ikusiko dugu: kilometro eskas egin ondoren desagertzen den Ertzilla ibaiaren hobia da.

Aldapa txiki baten ondoren, **Lezegaldeko simara** eramango gaituen pista bat ikusiko dugu. Ur-goraldi bereziki handietan Ertzilla ibaian gainezka egiten duten urak bertara joaten dira. Ondoren, Uhantxoko haranetik Basakaitz iturburura jaisten den ibilgu lehorretik jarraituko dugu. Basakaitz iturburuan sortzen da Larraun ibaia. Aldapa piko batetik, Iribasera itzuliko gara. Dena dela, azken aldapa baino bidezidor atseginago bat ere badago herrira iristeko.



Nacedero de Aitzarrateta

Aitzarratetako Iturburua

Foto / Argazkia: Iñaki Atxa

# ARESO







Bajo la montaña **Ulizar** se halla **Areso** que, rodeado de caseríos divididos tradicionalmente en cuatro barrios, alberga a 300 vecinos.

**Ulizar** mendiaren azpian, **Areso** herria dago. Herria lau auzotan banatuta eta baserriz inguratuta dago, eta 300 biztanle ditu.

A pesar de que la primera referencia escrita sobre Areso data de 1192 al reconocer el rey Sancho el sabio los **fueros de Areso y Leitza**, el lugar ha estado habitado desde tiempos inmemoriales.

En la edad media la zona fue conocida como la muga de los malhechores, ya que abundaban por estos parajes debido a las guerras de los banderizos y a estar situado entre el Reino de Navarra y Gipuzkoa en aquel entonces bajo dominio castellano. Tras la conquista del Reino, fueron numerosos los procesos por brujería, siendo famosas la campas del monte Ulizar por sus akelarres.

En el núcleo urbano se encuetran la Casa Consistorial, un edificio de cuatro plantas con porche y un escudo rococó de 1924. Es curioso el lavadero octogonal de 1916 recientemente restaurado. Aún se mantiene otro lavadero junto a la escuela. Todos los edificios del pueblo, excepto la **casa Perunea**, característica por su tejado de cuatro aguas, fueron incendiados por los franceses en la guerra de la Convención y por lo tanto no queda arquitectura anterior a 1800.

Destacan los edificios de estilo colonial -la escuela municipal, el Palacio y la casa Igalde- que dos aresoarras que hicieron las américas construyeron a su vuelta del nuevo continente. Este curioso conjunto se conoce como las **casas de los Indianos.**

Al oeste de la autovía destaca el **camino de Napoleón,** que une Areso con Gorriti y que transcurre por los parajes de **Iturbeltza** y **Zubiberrieta,** y linda con las ruinas de una ferrería romana y el antiguo molino harinero.

La cueva del monte Ulizar era, según la tradición, lugar de celebración de akelarres. Los parajes de este monte se encuentran ahora incluidos en la **ruta de las brujas.** La Inquisición erigió en este monte la **ermita de la Santa Cruz** para purificar el entorno de las influencias del maligno. La edificación se derrumbó en una nevada en 1520 y la Iglesia edificó otra ermita con el mismo nombre en el paraje de **Arinbe** 30 años después.

Otro de los caminos que transcurren por Areso es la **ruta de las Cañadas** también conocida como **ruta de los toros,** que une las Bardenas con Azpeitia y que es un paso natural para la transhumancia ganadera. Por las cañadas, el ganado atravesaba Navarra de sur a norte y entraba en Gipuzkoa en cuatro o cinco días.

Aresori buruzko idatzizko lehen erreferentzia 1192koa da (Antso Jakituna erregeak **Areso eta Leitzako foruak** aitortu zituen urtekoa), baina antzina-antzinatik bizi izan da gizakia bertan.

Erdi Aroan, inguruari gaizkileen muga deitu zitzaion, bandoen gerren ondorioz gaizkile asko ibiltzen zirelako eta Nafarroako Erresumaren eta garai hartan Gaztelako parte zen Gipuzkoaren


Foto / Argazkia: Plazaolako agiritegia

artean zegoelako. Erresuma konkistatu ondoren, sorginkeriari lotutako prozesuak ugariak izan ziren. Ulizar mendiko zelaietan egindako akelarreak ospetsuak izan ziren.

Hirigunean, Udaletxeak –lau solairu eta karrerapea dituen eraikinak– 1924ko rokoko estiloko armarri bat du. Halaber, berriki zaharberritutako 1916ko ikuztegi oktogonala azpimarratu behar da. Eskolaren ondoan ere badago beste ikuztegi bat. Herriko eraikin guztiak (ezaugarri bereizgarri gisa lau isurkiko teilatua duen **Perunea etxea** izan ezik) frantziarrek erre zituzten Konbentzio Gerran. Horregatik, ez dago 1800. urtearen aurreko arkitekturarik herrian.

Estilo kolonialeko eraikinak ere azpimarratu behar dira: udal-eskola, Igalde Etxea eta Jauregia. Amerikara joan ziren bi aresoarrek eraiki zituzten kontinente berritik itzultzean. Multzo bitxi horri **"indianoen etxeak"** deitzen zaio.

Autobiaren mendebaldean, Areso eta Gorriti lotzen dituen **Napoleonen bidea** dago. **Iturbeltza** eta **Zubiberrieta** izeneko parajeetatik eta erromatarren garaiko burdinola baten eta antzinako irin-errotaren ondotik igarotzen da.

Tradizioaren arabera, Ulizar mendiko kobazuloan akelarreak egiten ziren. Mendi horren inguruak **sorginen ibilbidean** sartuta daude gaur egun. Inkisizioak **Santa Kruz ermita** eraiki zuen mendi horretan, ingurua deabruaren eraginaz garbitzeko. Eraikina elurte baten ondorioz eraitsi zen 1520. urtean, eta Elizak izen bereko beste ermita bat eraiki zuen **Arinben**, handik 30 urtera.

Areso zeharkatzen duen beste bide bat Bardeak eta Azpeitia lotzen dituen **Abelbidea** da. Abereen transhumantziarako pasabide naturala da. Abelbidetik, abereak Nafarroa hegoaldetik iparraldera zeharkatu, eta Gipuzkoan sartzen ziren lau edo bost egunetan.



Foto / Argazkia: Aresoko herria

Salto de agua Matxain / salto ur jauzia

## INFORMACIÓN DE INTERÉS / INTERESEKO INFORMAZIOA

**Ayuntamiento / Udala**

T.: 948 51 03 27 • F.: 948 51 07 10 • www.areso.info • aresokoudala@ibercom.com

Viernes: de 10:00 a 13:00h / Ostiraletan: 10etatik 13:00etara

**Dotaciones Deportivas / Kirol Instalazioak**

Servicio de Deportes / Kirol Zerbitzua

T.: 659 07 69 68 • kirolamank@gmail.com

**Dotaciones Sanitarias / Osasun Hornidurak**

Consultorios / Osasun etxeak

T.: 948 51 00 17

Emergencias (24 horas, llamada gratuita)
Larrialdiak (24 ordu, deia dohainik)
SOS NAVARRA 112
Más información / Informazio gehiago:
www.plazaola.org



Foto / Argazkia: Aresoko herria

Marcha Montañera de Areso-ko Mendi martxa

## DONDE COMER- DORMIR / JAN ETA LO

### RESTAURANTE / JATETXEA

**Sastinea Jatetxea** // 40

Elbarren, Areso 31876 • T.: 948 61 07 04
info@sastinearestaurante.es

## AGENDA - EVENTOS

| | |
|---|---|
| • Cabalgata de Reyes | 5 de enero |
| • Carnaval | (último fin de semana de enero o primero de febrero) |
| • Romería a la ermita de Santa Cruz | 3 de mayo |
| • Víspera de San Juan | 23 de junio |
| • San Juan | 24 de junio |
| • San Pedro | 29 de junio |
| • Fiestas | 14-18 de agosto |
| • Marcha montañera | 1er domingo de septiembre |
| • Día del Euskera | 3 de diciembre |
| • Olentzero | 24 de diciembre |

Las fechas son aproximadas. Consultar con cada ayuntamiento.

## AGENDA - EKITALDIAK

| | |
|---|---|
| • Erregeen Kabalgata | urtarrilak 5 |
| • Inauteriak | (urtarrileko azken asteburua edo otsaileko lehenengoa) |
| • Erromeria Santa Kruz baselizara | maiatzak 3 |
| • San Juan Bezpera | ekainak 23 |
| • San Juan | ekainak 24 |
| • San Pedro | ekainak 29 |
| • Herriko festak | abuztuak 14-18 |
| • Mendi martxa | irailleko lehenengo igandea |
| • Euskeraren Eguna | abenduak 3 |
| • Olentzero | abenduak 24 |

Datak orientagarriak dira. Udal bakoitzarekin kontsultatu.

# IMOTZ







Pastos y bosques de las estribaciones orientales de Aralar acogen junto a los ríos Larraun, Basaburua e Imotz al valle del mismo nombre.

Aralarko ekialdeko mendietako larre eta basoek eta Larraun, Basaburua eta Imotz ibaiek Imotz harana osatzen dute.

Al pie de la Sierra de Aralar, pasando las Dos Hermanas, de Irurtzun en dirección Donosti, el primer valle que encontramos es Imotz, flanqueado por los valles de Basaburua, Ultzama, Atez y Juslapeña. El acceso por carretera es por la A-15 con salidas a Urritza, Goldaratz y Latasa. Por esta última salida se llega a la comarcal NA-4130 que recorre el resto de los pueblos del municipio.

El valle de Imotz, que recibe su nombre del río homónimo, agrupa ocho concejos, **Goldaratz, Urritza, Latasa, Eraso, Zarrantz, Etxaleku, Oskotz y Muskitz,** en los que viven 434 vecinos. Su capital administrativa se ubica en Etxaleku, que es el único concejo con más de 100 habitantes. Sus principales riquezas son la ganadera y la forestal. Huertas y pastos alternan con bosques de hayas, robles y castaños. Tres cuartas partes del término está ocupado por arbolado. Existe una red de senderos que recorre todos los pueblos y bosques del valle compuestos por robles, arces y hayedos históricamente carboneados. La Cañada Real, que se utilizó entre los siglos XVII al XIX para llevar reses bravas del sur de Navarra a Gipuzkoa, cruza Imotz de sur a norte.

Guardado por el paso de Dos Hermanas, **Goldaratz** vigila el desfiladero y gran parte del valle de Imotz. Posee la única iglesia románica del valle, remodelada según los cánones barrocos. De aquí se llega a la cima de Iruiondi, desde la que hay una excelente panorámica de la sierra de Aralar, las Malloas, San Donato, el macizo de Saioa y parte de la cuenca de Pamplona.

Muy cerca está **Urritza,** al pie de lo que fuera la calzada real. De hecho, el negocio del pueblo eran las ventas. La más importante fue la de Txurikain que aún perdura con su pequeña capilla adosada, al borde del puente que cruza el río Basaburua. En 1787 se puso la primera piedra de la que hoy es la venta de Urritza. En la confluencia de los ríos Larraun y Basaburua se hallan los restos de la ferrería de Pastaola y una pequeña central hidroeléctrica.

La vecina **Latasa** también tuvo su gloria con la calzada. A la entrada se hallan el palacio Portonea (del portero), Mandategia (donde reposaban las mulas) y Arotzenea (del herrero), así como varias posadas. Destaca la iglesia gótica de San Esteban. No hay que perderse montes preciosos y muy poco transitados como el Mundumalkorra, idela para practicar escalada y senderismo.

